



Epaimahaiaren akta

Eibarren 675. urteurrenaren logotipoa diseinatzeko lehiaketa

Epaimahaikideak:

Miguel de los Toyos Nazabal, alkatea

Idoia Sarasqueta Aramburu, Ego Ibarra batzordeburua

Francisco Javier Lejardi Galarraga, Ego Ibarra Batzordeko zinegotzia

Josu Mendicute Rodríguez, Ego Ibarra Batzordeko zinegotzia

Jose Angel Gimare Escolar, Ego Ibarra Batzordeko zinegotzia

Isabel Fernández Pejenaute, Ego Ibarra Batzordeko zinegotzia

Yolanda Ruiz Urbón, Udal Artxiboaren arduraduna

Jose Antonio Azpilicueta Albizu, EHUko Arte Ederretako irakaslea

Leire Maria Careaga Azkarraga, Marrazki Eskolako irakaslea

Elena Juaristi Urdangarin, udal arkitektoa

Idazkaria:

Begoña Azpiri Eguren, Ego Ibarra idazkaria

Eibarren, 2021eko urtarrilaren 15ean, lehiaketaren idazkariak, 12:53ean, *Eibarren 675. urteurrenaren logotipoa diseinatzeko lehiaketaren* Epaimahaikideei egun horretan Udalaren Sarrera Erregistroan sartutako aurreneko 5 logotipoak bidali zizkien, posta elektronikoz bidez, Sharefileko esteka erabiliz.

Aurenko bidalketa horretan epaimahaiaren esku jarritako lan bakoitzaren zenbakia eta leloa —ausaz ordenatuak eta bakoitzaren leloa zeramatela, egiletza ezkutuan gordetzeko— hauexek izan ziren:

1. *675. urteurrenerako LOGO lehiaketa*
2. *Ciudad nueva de San Andrés*
3. *Eibar bizia*
4. *Eibar, leku bat baino gehiago*
5. *Hasera baino ez*

Aldi berean, idazkariak adierazi zien proposamenetako bat baztertu egin zela, Udal Errolda eta Estatistika Atalari eskatu eta hark emandako informazioan oinarrituta, ez baitzuen betetzen Oinarrien 2. atala (Eibarren bizi izatea edo Eibarkoa izatea).

2021eko urtarrilaren 18an, 09:54an, jasotako azken 6 proposamenak bidali zitzaizkien epaimahaikideei, posta elektronikoz eta Sharefile bidezko esteka bidez. Bestalde, Oinarriek ziotena kontuan izanda, epaimahaikideei erregutu zitzaien erantzuna egun horretan bertan ematea. Hauek izan ziren logotipo-proposamen bakoitzari ezarritako zenbakia eta bakoitzari zegokion leloa:

6. *roble&laurel*
7. *expansión*
8. *las tres artes*
9. *skyline*
10. *logotipo del 675 aniversario*
11. *logotipo conmemorativo*



Egun horretan bertan, Yolanda Ruiz Urbón andreak denbora gehiago eskatu zuen proposamen guztiak ondo irakurri eta zorroztasunez aztertzeko.

Azkenean, epaimahaikideek beste bi egun gehiago ematea adostu zuten, batzuk idatziz eta gehienek isilbidez; hain zuzen ere, urtarrilaren 20ra arte luzatzea.

Yolanda Ruiz Urbón andreak, urtarrilaren 19an (08:20) 8., 9. eta 11. proposamenak onartu ala ez jarri zuen zalantzan, proposamenak ez zirelako anonimoak (Memorietan eta dokumentu erantsi batzuetan izenak agertzen ziren) eta galdatu zuen proposamen horiek onartu edo baztertu behar zirenentz.

Idoia Sarasqueta Ego Ibarren batzordeburu andreak, telefonoz, hilaren 20an, hauxe adierazi zion Batzordearen idazkariari: "Oinarrietan ez denez jaso ezer horri buruz, aurkeztu diren proposamen guztiak hartu behar dira aintzat". Hala adierazi zitzaion Epaimahaiari (8:39).

Epaimahaikide batek berak ere ez zuenez ezer kontrakorik edo aldekorik adierazi gai horren inguruan, isilbidez, proposamen guztiak onartu ziren.

Azkenik, urtarrilaren 20an (16:52), epaimahaikideei bakoitzak emandako bozka jasotzen zuen taula eta jakinarazpena bidali zitzaientzen, zeinean hirugarren lanaren aukeraketan hiru proposamenen arteko berdinketa gertatu zela adierazten zitzaientzen:

Aukeraketa-zerrenda:

<i>Proposamen-zenbakia</i>	<i>Botoak</i>
6	6
10	6
5	3
1	3
11	3

4	2
9	2
2	1
3	1
7	1
8	1

Egun horretan bertan, hilaren 20an, arratsaldeko 5etan, Ego Ibarra batzordea biltzen zenez, Batzordeburuak 1, 5 eta 11 logotipoen artean izandako berdinketa hautsiko lukeen moduren bat bilatzea eskatu zuen. Hauxe erabaki zen: hiru logotipo horien arteko bozketa egitea berdinketa hausteko, epaimahaikide bakoitzak proposamen horietako bakoitzari 3, 2 edo puntu 1 emanda.

Batzordeko idazkariak, urtarrilaren 20an (19:07), posta elektronikoz mezua bidali zien epaimahaikide guztiei horren berri emanez eta bozkak hilaren 21eko 12ak baino lehen eman zitzaten erregutuz.

Bozkak emanda eta zenbatuta, hauxe izan zen emaitza:

Proposamen-zenbakia	Botoak
11	25
1	18
5	17

Horren aurrean, 11. logotipo-proposamena da —6. eta 10. proposamenekin batera— herri-galdekedarako jarriko dena.

Bozketarako, Antolaketa eta Informatika Sailek formulario bat prestatu dute WordPres-an oinarritua. Bozketan, 8. Oinarriak esan bezala, 14 urtetik gorako pertsonak har dezakete parte, botoa ematen den unean Eibarren erroldatuta daudenek.

Azkenik, Udal Informatika Sailak Excel-ean emandako artxiboa jaso ondoren, Epaimahaiaren idazkariak honako mezu hau bidali zien epaimahaikide guztiei:

“Emandako bozka guztien erroldatze- eta adin-baldintzak eta birritan edo gehiagotan eman direnents egiaztatu ondoren, hona hemen:

Herri-galdeketa emaitza:

<i>Boto kopurua</i>	336
<i>Baliozko botoak</i>	278
<i>Boto baliogabeak</i>	58 ¹

Bozketaren azken emaitza:

Leloa	Botoak
<i>Logotipo del 675 aniversario</i>	190
<i>roble&laurel</i>	66
<i>Logotipo conmemorativo de Eibar</i>	22

Logotipo del 675 aniversario lelopean aurkeztu den lanaren egilea Andrea Garcia Alvarez da.

Hemen jasotako guztia Epaimahaiari jakinarazten diot 2021eko otsailaren 1ean.”

2021eko otsailaren 1ean, 13:13an, idazkariak ohar hau bidali zien epaimahaikide guztiei alkateak hala aginduta:

“Alkateak, oinarrien 11. artikulua arabera (*IRABAZLEAREN KONPROMISOAK. Lehiaketaren irabazleak konpromisoa hartzen du bere jatorrizko diseinutik abiatuta logotipoa erabiltzeko behar diren egokitzapenak egiteko, beharrezkoa izanez gero*), hauxe proposatu du:

Irabazlearen logotipoan azaltzen diren 4 dultzainero horien ordez 3 jar ditzala egileak, Eibarren ez direlako inoiz 4 dultzainero izan, 3 baizik.”

¹ Oinarrien 8. artikulua arabera

Josu Mendicute jaunak, otsailaren 1ean, 13:31n epaimahaiari bidalitako posta bidez hauxe adierazi zuen:

"Ez dira hiru. Bi gaitero eta atabalari bat dira Sanjuanetan etortzen direnak. Beste kontu bat da estetikoki hobeto geratuko den bi gaitero atabalari bat jartzea, edo gaitero bakarra. Agian, gaitero bakarra garbiagoa da eta aski ordezkatu dezake kontzeptua."

Leire Kareaga andreak, ohar bat bidali zuen otsailaren 13an, 13:38an, Mendicute jaunak esandakoa ondo iruditzen zitziola esanez.

Bere aldetik, Elena Juaristi udal arkitekto andreak, hauxe adierazi zuen hilaren 1ean, 14:39an:

"Hiru izatea egokia iruditzen zait, izan ere, dultzaineroak identifikatzea pixka bat kostatzen da eta 4 izatea ez da lagungarria. Baina, konposizioan, irudiek "erronboak" betetzen dituzte (erronbo erdia hartzen duen mendia izan ezik, testuarekin lotzeko erabiltzen dena). 3 dultzainero badira, egileak hirukotea kokatzeko modua behar du (erronboaren kanpoko triangeluan, dultzainak gurutzearen erdialdera jarrita?), geometrikoki errazagoa da. Hirukotean danbor bat sartzeak silueta bat gehiago sartzera behartzen du (ez da desiragarria, badaude nahiko). Nire ustez, sinboloak modu generikoan identifikatzen ditu dultzaineroak. "

Isabel Fernández andreak otsailaren 2an 12:15an bidalitako mezuan "ados" zioen alkatearen proposamenaren aurrean.

Sarasqueta andreak, posta bidez, idazkariari ohar bat bidali zion otsailaren 3an 11:07an, alkateak egindako proposamenaren alde.

Azkenik, otsailaren 4an, idazkariaren eskariz, eta logotipoaren diseinua aldatzeko gehiengo kualifikaturik ez zegoenez, alkateak honako ohar hau bidali zion 08:58an: "Edozein aldaketa egiteko, epaimahaiaren adostasunez edo gehiengo zabalarekin egin behar da, eta hori ez da kasua, beraz, ez nuke diseinu irabazlea ukituko."

Eibarren 2021eko otsailaren 4an

Miguel de los Toyos Nazabal, Epaimahaiburua

Begoña Azpiri Eguren, idazkaria

